

SARTU, KORRONTEA DABIL

Narratiba, 40

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, halaber, informazioa berreskuratzeko baliabide mekaniko, fotokimiko, magnetiko, elektrooptiko edo fotokopiak erabiliz erregistratzea eta zabaltzea, jabeek alde zuzenetik eta idatziz emandako baimenik gabe.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Ixiar Rozas

SARTU, KORRONTEA DABIL

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Concetta Probanza, Dantza (1989)

© Ixiar Rozas

© EREIN. Donostia 2001

ISBN:84-7568-573-0

L. G.: S.S.-1050/01

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@zarautz.com

www.zarautz.com/itxaropena



“Azkenean hitzak euren amaieran ikusten dituzun arte.
Hitz antzu bakoitza azkenekoarengandik gertuago. Eta eurekin
batera ipuina. Norbaiten ipuina zurekin batera iluntasunean.
Norbaiten ipuina iluntasunean ipuin bat kontaktzen. Hobe, finean,
galdutako nahigabeak eta isiltasuna. Eta zu, beti egon zaren bezala.
Bakarrik”.

SAMUEL BECKETT, Company

Zuri.

KORRONTEAK

Barkatu, itxiko al zenuke atea mesedez?

Emakumeak ez dio Abdouri galdetu, ate ondoan eserita dagoen gizonari baizik. Batzuetan begiak ixten zaizkio leihoan dagoen emakumeari; loaren bidea hartzen du, baina berehala esnatzen da buruaren nahigabeko mugimendu batekin. Begiak zabaltzen dituzenean urtsuak dituela ikusten du Abdouk, eta leihoaz bestaldera darama berriro soa. Haietako batean, buruaren mugimendu nahigabea Abdouren sorbaldan amaitu da. Oso leuna da emakumearen ile beltzarana, ume batena dirudi, baina aurpegian dituen zimurrengatik berrogei bat urte botako lizkioke. Usain ona du, berezkoa; ez du perfume merkerik erabiltzen, herriko neskek mutiletan egin nahi dutenean ez bezala. Burua sorbaldatik kendu dio Abdouk, leun, eta berriro ere beiraren kontra bermatu dio.

Ate ondoan eserita dagoen gizonak liburu batean du begirada. Trena geltokiren batean geratzen den orotan, liburutik altxatzen du, leihoan jartzeko, eta hasperen egiten du, liburuan irakurtzen ari den guztia leiho hartan islatzea nahiko bailuen. Eta ateari zeharkako begiratu bat ematen dio noizean behin, itxita jarraitzen duela ziurtatzeko. Beltzez jantzita dago. Goitik behera. Leihoaz bestaldera erortzen ari den euria bezala.

Euriak desira ezkutuak betetzeko ahalmena duela entzun izan du Abdouk ulertzeko gaitasuna duenetik.

Trenera igo aurretik inork ez zion esan hainbeste euri egingo zuenik. Nora jo behar zuen esan zioten, tren non hartu behar zuen eta zenbat orduko bidaia izango zen, baina ez, adibidez, euriaren ñabardurarik –ez zen, antza, azpimarragarria, bidaiari buruz jakin beharreko guztiak esan zizkionarentzat–. Ordaindu zion diru kopuruaren truke ez zegoen horrelako informaziorik jasotzerik.

Xehetasun hori jakitea garrantzitsua da beretzat, ordea, akaso hortxe, euriaren baitan, datekeelako bere eginkizunaren arrakasta ala porrota. Ulertzeko gaitasuna duenetik entzun dituen euriari egotzitako dohainak benetakoak badira behintzat.

Hemeretzi urte bete berriak ditu Abdouk. Ezagutzen ez duen hiri baterantz doa: Parisera, ulertzeko gaitasuna duenetik bere herritarren ahotan hain sarritan entzun duen hirira. Trenez orain, edozein ustekabe saihesteko modurik ziurrena dela adierazi diotelako; baina aurretik, ahal izan duen guztian: oinez, itsasontziz –txalupa bati itsasontzia dei badakioke–, hozkailu-kamioi baten atzealdean. Gau eta egun, bizitza hobe baten bila doa bera bezain gazte diren beste batzuek inguraturik. Zorionez, horien aurpegietara so egitean ikusi du Abdouk bera desberdina dela, bera ez baitoa bizitza hobe baten bila: bere abizenari ohore egitera doa Parisera. Horretara bakarrik.

Egunak dira Mali agurtu zuela. Agur esan ziola arren aita topa zezan eskatzen zion amaren begiradari. Poltsikoan darama, paper zati batean idatzita, jatetxe baten helbidea –bilaketaren abiapuntua–, eta baita aitaren argazkia ere –bilaketan lagungarri izango zaiolako

an–. Jatetxean elkartzen omen dira maliar guztiak astean behin, eta ziur dago aitaren arrastoa eurek emango diotela. Helduleku bakarra du, beraz, hara ez bada ez baita ki nora jo.

Pariseko tren geltokian ikusi omen zuten Abdouren aita azkenekoz. Jatetxearen jabeak ikusi zuen, maleta handi bat zeramala, eta horrek bi gauza adieraz zitzaketen: Abdouren aita hiritik alde egiteko zorian zegoela edo iritsi berria zela. Baina geltokitik atera eta taxi bat hartu zuela ikustean, lehenengo aukera baztertu egin zuen jatetxearen jabeak. Geratzera zetorren, beraz; beste herritar bat patu hobeago baten bila, horixe pentsatu zuen. Taxira gerturatu zenerako urrunduta egin zen. Agurtzeko betarik ez. Eta geroztik ez dute Abdouren aita berriro ikusi. Baliteke hiritik joan izana, edo, besterik gabe, kale eta etxe labirinto hartan barrena desagertu izana. Hiriko biztanle asko bezala. Hori da esan ahal izan dioten guztia.

Abdouk badaki, ordea, berari ez zaiola gauza bera gertatuko, herrira itzuliko dela; hori pentsatzen aritu da trenean eseri denetik, trenak burdinbidean daraman abiadaren eraginez dena arindu bailitzan. Agian, bereak ez diren beste hamaika arrazoiengatik, bera bezalaxe trenean doan jendearekin nahasi delako. Izan ere, beste bat da orain Abdou bagoian, ondoan dituen gizonaren eta emakumearen aldean desberdina, baina aldi berean leihotik begira dezake berak ere, egunero ibilbide bera egiten duenaren patxadaz –poltsikoan daraman argazkia ahaztuz–. Besteek bezalaxe txartela ordaindu du berak ere; ez du itxura txarririk, amak propio erosi zion alkandora apaina baitarama soinean. Azalaren kolore ilunak bakarrik egiten du nabarmen, baina

horrek ez du zertan kezkatu, Parisen bera bezalako azal iluneko asko baitago.

Bat-batean, emakumea tinko zutitu, berokia jantzi eta pasillora atera da sakelako telefonoa eskuan duela; gizonaren begiradak esku artean duen liburuan jarraitzen du, eta, tarteka, oinen artean duen maleta beltzera egiten du so. Ederra da emakumea, beltzarana; margo-tuak ditu ezpainak, gorritz; apain doa jantzita. Besoekin inguratzen du gerria, gorputza berotzeko berokia nahikoa ez bailuen. Zigarroari zupada pare bat eman eta berriro itzuli da bagoira, beste gazte bat bagoira sartu den unean berean. Azal ilunekoa balitz Abdouren antz handia izango luke gazte horrek; desberdintasun handi bat dago, ordea, bien artean: gaztea ere Pariserantz doa, baina, Abdouk ez bezala, munduko beste edozein hiri aukera zezakeen bezala aukeratu du hiri hori.

Libre al dago eserlekua?, esan du gazteak bagoiari begiratu azkar bat emanez.

Iribarretsu galdegin du. Hirurek baietz egin dute buruarekin: mekanikoki emakumeak, Abdouk atsegin, eta begirada liburutik altxatu gabe gizonak. Gazte sartu berriaren itxura zakarrari zeharka begiratzeko bakarrik mugitu ditu azken honek begiak. Maleta bat darama gazteak, emakumeak bezalaxe, baina ez da pertsona garrantzitsuek eramaten dituzten horiek bezalakoa: musika-tresnak gordetzeko horietakoa baizik; gitarra bat, biolin bat, kontrabaxu bat, edozer eraman dezake barruan.

Segundo batez, bagoian gaztea eta Abdou bakarrik daudela dirudi, elkarri nola begiratzen dioten ikusita. Luze, sakon, batak bestea sakon aztertuz. Abdouk leihora desbideratu behar izan du berriro begirada. Bere

herrian sexu bereko gizonekin oheratzea nahiko arrunta den arren, emakumeak maite ditu Abdouk. Nolabait esateko, gauak eta gauak emango lituzke alboan duen usain gozoko emakume beltzaranari besarkatuta. Haren ezpain finak bereekin janez.

Bagoiko atea zabalik geratu da, beste behin.

Barkatu, itxiko al zenuke atea mesedez? Korrontea dabil eta ez nuke hoztu nahi, esan dio emakumeak gizonari, ahal duen modurik atseginenean.

Gerria besoekin inguratu du berriz emakumeak. Begiak ixten hasi zaizkio, Abdouren pentsamenduak asmatu eta haiengandik ihes egin nahiko bailuen. Berde dago leihoaz bestaldeko paisaia guztia. Zein desberdinak diren Abdouri begietatik abiada bizian igarotzen zaion paisaia emankorra eta bere herriko lautada irmoak. Agure baten azal zahar eta zimurtuaren itxura dute han; hemen, ume baten ile kizkurra bezain harrotuta dago dena.

Hainbeste dira Abdouk ulertzen ez dituen gauzak... Badago, ordea, guztien gainetik nabarmentzen den bat: zergatik gainditu behar dituen hainbeste oztopo edonora iristeko; zergatik ibili behar duen suge bat bezala arrastaka, bere bizitza arriskuan jarritz, mendeetan zehar herrialde handiek behar zuten guztia lapurtu badiote jabegoan zuten lurraldeari. Bere herriari.

Zergatik egiten diguzue hau guztia?

Galdera hori egingo lieke Abdouk gizonari eta emakumeari, baita gazteari ere. Galdera hori eta beste asko. Izango al lukete erantzunik? Nor da bera, ordea, lasai asko dauden horien bizitzan sartzeko. Nahiago du egunen batean dena errazago izango dela pentsatu, nahiz eta ulertzeko gaitasuna duenetik entzun duen boterea han-

ditu egiten dela txikien bizkarretik, eta bere lurraldea oraindik askoz txikiagoa egin daitekeela. Dena dela, jakin badaki bere bizitzan behintzat zerbait aldatzera doala, hobe baita gauza handietan baino txikietan sines-tea. Handiak aldatu ahal izateko txikietatik hasi behar dela. Eta horixe egingo du berak aitaren arrastoa aurkitzen duenean.

Euriak lagunduko ote dio?

Euritsua izan zen halaber, iratzartzean ama malkotan aurkitu zuen goiza. Egun euritsuak gogoratzea ez da harriztekoa, urtean behin, edo asko jota bitan, botatzen baitu euria bere herrian. Eta horri, goiz hartan gertatutakoa erantsi behar zion: bere aitak etxetik alde egin zuela. Aita bat joan eta ez itzultzea bizitzan behin gertatzen da, asko jota bitan, itzuli eta berriro joaten bada ez baitago hirugarren aukerarik. Hori entzun izan du Abdouk ulertzeko ahalmena duenetik.

Horregatik, aita itzuliko zela pentsatu zuen hasieran Abdouk, amaren malkoen esanahia beste bat zela: ume bat ekarri behar zuela, alegia, aitak beste ume bat egin nahi ziola eta pozez ari zela negarrez. Hori zen euriak zekarren amaren desira ezkutua. Abdouren desira ezkutua bistan geratu zen amari, goxo, xamurtasunez, horrela hitz egin zionean:

Ez arduratu; iluntzen duenerako etxean izango da.

Horrelakoak esatea anaia zaharrari dagokiola jakiteak ematen zion ardurarekin hitz egin zuen Abdouk. Ez zuen, ordea, amaren atsekabea lasaitzea lortu: ur-tantek lur iharra urratzen zuten indarrarekin iluntzen zuten malkoek amaren aurpegia. Dardara batean zegoen honek bi eskuekin heltzen zion papera. Isiltasuna hain zen sakona, non dardararen hotsa ere antzeman baitzitekeen

airean. Amak, begirada inon ez zuela, isiltasuna eten zuen arte:

Alde egin du; utzi egin gaitu, Abdou.

Semearen izena erantsi zuen amaitzeko, geratzen zitzaien esperantza bakarra. Logelara itzuli zen Abdou, kopetilun, eta euriari begira geratu zen, leihoa zabal-zabalik zuela. Kea zerion lurrari, berotasunaren eta eurien arteko norgehiagokan. Logelari ere kea zerion, Abdouk eskuz egina zuen eta gogoz zurruputzen ari zen zigarroarena.

Hamabost urte besterik ez zituen orduan. Beste lau joan ziren ama gaixo aurkitu zuen goiza iritsi zen arte.

Joan zaitez haren bila, Abdou, esan zion amak tinko goiz hartan. Ez zaituztet bakarrik utzi nahi ni joaten naizenean.

Zituen zazpi seme-alabez ari zen. Eta zaharrenak, Abdouk, bazekien amak ez ziola inoiz hain modu arduratsu eta zorrotzean hitz egin. Zerbait larria gertatzera zihoan eta bere esku zegoen guztia egingo zuen. Ez zuen denbora galtzerik. Gero jakin zuen ama gaixorik zegoela.

Emakumeak eserlekutik altxatzerakoan egin duen zaratak trenera itzularazi du Abdou. Maleta txiki beltza hartu du emakumeak, eta pasillora doa. Telefonoa atera, botoiak sakatu eta zain dago; hizketan hasi da, urduri, esaten duen hitz bakoitzean bizitza joango balitzaio bezala. Aurpegi ilunez eten du deia. Beste dei bat ari da egiten, lasaiago; irribarre batek ihes egin dio zain dagoen bitartean. Maleta txiki beltzetik egunkari bat atera eta zabaldu egin du.

Abdou ez da emakumeari begira dagoen bakarra, liburua duen gizonak ere ez dio begirik kentzen; baina gazteak ez: harrapatuta daukate bere pentsamenduek,

edo poltsan daraman tresnak. Berrero eten du deia emakumeak; maleta txikia hartu eta aurrera doa korridorean, zigarro bat piztu ondoren. Zupada sakona eman, eta leihotik begira geratu da. Kanpoaldetik datozen errepidetako argiak haren aurpegian islatzen dira. Orain argi bat, ondoren itzal bat. Edozein erabaki hartu aurretik birritan pentsatzen duten emakume horietakoa da. Beste zupada bat. Beste pentsamendu bat.

Barkatu, itxiko al zenuke atea mesedez? Korrontea dabil.

Airean gelditu dira hitz horiek. Bagoiko sabaitik zintzilik. Ahots pisua du –hitz bakoitzari garrantzi handia ematen dio–, sartu berri den gaztearena ez bezalakoa; arinagoa da azken honena: hitz bat esan arren, beste edozein erabil zezakeen; Parisen ordeztu edozein hiri aukera zezakeen bezala. Gizonak ez du oraindik ahoa zabaldu.

Ezkonduta al zaude? Ba al duzu seme-alabarik?

Hori guztia jakin nahi luke Abdouk: emakumea ezkonduta dagoen, senarra ote duen begi urtsuen arrazoiak. Senarrari deitu berri ote dion. Liburua eskuetan duen gizonak Abdouren poltsa zaharrean jarri du orain begirada; barruan zer daraman asmatu nahian bezala –nahita ere ez luke sekula asmatuko, ordea, aita bueltarazteko argazkiz eta oroigarritz beterik duela.

Oroitzapenak pizten badizkiozu bakarrik itzuliko da, esan zion amak tinko, aurretik aukeratutako gauza guztiak poltsan sartzen zizkion bitartean.

Eta aurkitzen ez badut, ama, zer gertatuko da?, galdetzen dio orain Abdouk bere buruari.

Emakumea bagoira bueltatu denean liburura itzuli du begirada gizonak, arreta Abdouren zuela konturatu eta lotsatuta bezala. Emakumea hilekoarekin egon

daitekeela otu zaio Abdouri. Usaimena du Abdouk zentzumenik garatuena, eta hilekoa duten emakumeek desberdin usaintzen dutela daki; bagoira sartu denetik, ordea, usain gozoa gailentzen da eta ezin du besterik antzeman. Emakumearengandik askoz gertuago egon beharko luke horretarako; burua berrero sorbaldan jartzen badio saiaturiko da sakonkiago usaintzen. Gainera, esatera doanean jarri du arreta guztia.

Asko geratzen al da heltzeko?, ausartu da galdetzerako, behingoz, Abdou.

Galderak, askotan, ezezagunenganantz gerturatzeko modua direlakoan bota du. Gazteak ezetz esan dio buruarekin, irribarretsu. Beste biak, ordea, oso urrun daude bagoi horretatik, tren horretatik. Abdouri iruditzen zaio ordu dezente direla trenabiaturako denetik; beraz, baliteke, gazteak esan bezala, gutxi geratzea. Poltsikoan daraman argazkia atera eta ausartu da azkenean galdera egitera. Arnasari eutsi dio:

Ezagutzen al duzue?, galdegin du herabe, eta honakoa erantsi: nire aita da.

Argazkirantz jiratu dute hirurek burua, batera. Isiltasuna nagusitu da. Mutu daude argazkiari begira. Baikortasun keinu xume bat besterik ez du behar Abdouk bere bidaia alferrikakoa izango ez dela jakiteko. Keinu bakar bat. Baina isiltasuna luzea da. Gazteak sentitzen duela dio etsipen keinu batez: urteak dira ez dela hiri hartan izan.

Parisen norbait aurkitzea patuan sinestea bezain ezi-nezkoa da, esan du, berriz, emakumeak.

Haren hitz pisuak aurretik zintzilik geratu dira, berrero. Zeharka begiratzen dio emakumeak argazkiari, aita eta semearen arteko antza handia dela ukalezina baita.

Gustura asko esango lioke emakumeak Abdouri gizon hura agian ez dela bere aita. Amaz bakarrik dagoela ziur bera, inoiz ez duela jakin –eta ez duela jakingo– aita duen benetako aita. Bizitza horrelakoa dela Paris bezalako hiri erraldoietan. Eta itzultzeko bere herrira, hori ere esango lioke, hiriaren atzaparretan erori nahi ez badu. Eta emakumeak hori pentsatzen duen bitartean lehenengoz gurutzatu dira bien begiradak, istant luze batez, korrante luze bat sortuz. Gaztearen ezpainak gau oso batean galtezko modukoak direla pentsatu du emakumeak.

Ez, ez dut sekula ikusi; asko sentitzen dut, asko, errepikatu du bere burua konbentzitu nahian, eta ezetz egin du buruarekin.

Ezezagunaren kolorea du emakumeak begietan, Maliko gau ilunetan ikusten den zeruarena. Azal ilunekoentzat ez baitago urdina baino kolore ezezagunagorik. Hori ere aspaldi daki Abdouk.

Isiltasunak bere lekua hartu du berriro bagoian; burdinbidearen hotsak bakarrik eteten du. Ateak itxi dizkie baikortasun hitz xume guztiei.

Txistuka hasi da gaztea; musika-tresna poltsatik atera eta oraintxe bertan hasiko litzateke jotzen. Gizonak berriro du begirada liburuan eta emakumeak, leihoan. Ilajea orrazten du azken honek behatzekin. Behatzak ile artean dituen zirikituak zabaltzen dira, eta horietan barrena sartzen den argiari esker leihoaz bestaldeko argitasuna handiagoa dela ikusi du Abdouk. Zalantzarik gabe, iristen ari dira, edo behintzat orain arte zeharkatu dituzten herriak baino handiagoa den hiri batera ari dira gerturatzen. Trenetik jaitsi bezain pronto paper zati batean idatzita daraman jatetxearen helbidera eramateko esango dio taxi-gidariari.

Mantsotzen hasi da orain tren. Emakumeak eskuko ispilua atera du poltsatik makillajeari ukitu batzuk emateko. Ondoren, zutitu, bagoitik atera eta telefonoz hitz egiten hasi da. Bi aldiz, aurrekoan bezala: aurpegi zurrunez lehenengo aldian, eta irribarretsu bestean.

Oraingoan ez da eserlekura bueltatu; zutik geratu da pasilloan, pentsakor, hiriaren gaueko argiei begira. Abdou egoeraz baliatu da aurpegia leihora gerturatzeko. Geltokiko burdinazko teilatua ikusten du, eta beirak itzultzen dion bere aurpegi nekatuaren isla; baita barruko beldurrarena ere: hiri hartan egun batzuk geratzea lortuz gero, egun horiek hilabeteak bilakatzea, eta hilabeteak urteak. Malitik atera diren guztiei gertatu zaien antzera.

Poltsaren ertzak ferekatu ditu gazteak, gogoz; badaki tren gelditu bezain pronto eskuan izango duela berriro bere musika-tresna, haren sokak hatzen artean. Gizonak liburua itxi eta hasperen egin du, etxera iritsi arte ezingo baitu irakurri. Baliteke arreta harrapatu ez dion liburuaz asper eginda egotea. Emakumeak zigarro bat piztu du, korridorean.

Trena gelditzen ari da. Gaueko hamarrak direla ikusi du Abdouk geltokiko ordulari nagusian. Eta ordulariaren azpian dagoena ez zuen espero; hori ez zuen espero, ez, bidaiatzeko modurik ziurrena tren zela esan baitzioten. Ez zitziola deus gertatuko. Egia da gauez bidaiatzeko aholkatu ziotela. Amak erositako alkandorak oharka-beagoa egingo ahal du. Izerdia dario lokietatik: polizia dago nasan, kale-jantzian, hurrengo noiz atxilotuko zain.

Bagoira itzuli da emakumea. Beste behin, bigarren aldiz, begiratu dio emakumeak Abdouri, kezkatuta, poli-

zia nola saihestuko duen galdetuz bezala. Poltsan liburua gorde duen gizona eta gaztea, berriz, ez dira poliziaren presentziaz jabetu. Gazteak beste nonbait du dagoeneko begirada, eta burua.

Zigarro bat eskaini dio emakumeak Abdouri. Beren eskuek elkar ukitu dute metxeroarekin su-lama gerturatu dionean. Abdouk ezin izan du, ordea, irribarrerik egin eskerrak emateko. Emakumeak maleta bat jaitsi du buru gainean duen burdinazko apaletik. Gizonezkoak ere bere maleta hartu du; gurpildun horietakoa da. Gazteak besapean babestu du musika-tresnaren poltsa.

Abdouk, berriz, eserlekuan jarraitzen du. Euria egingo balu, trenari ez geratzeko eskatuko lioke, aurrera jarraitzeko, eta atzera egiteko hiri hartara eramán duten kilometro guztiak; baina geltokia handia da, erraldoia, eta babesten duen teilatuak ez dio kanpoan euria ari duen ala ez ikusten uzten.

Hirurak bagoiko atera gerturatu dira, eta lehenengo nork gurutzatuko duen zain geratu. Geltokiaren derrepenteko argitasunak agerian utzi du Abdouren beldurra.

Erabat gelditu da trena orain; Abdouk ez du zutitu eta bere poltsa sorbaldan zintzilikatzeko beste erremediorik izan. Emakumea ateratzear zegoen, baina lehenengo gizonari eman dio bidea.

Nasatik, jaisten doazen guztiak miatzen ditu begiradaz polizietako batek. Gizona badoa behera, eta haren atzetik gaztea. Azken begiratu bat eman dio honek Abdouri, bat-batean dena ulertu duela adieraziz bezala. Atzera egin nahiko luke Abdouk, baina beranduegi da jada. Emakumearen txanda iritsi da; Abdou haren atzetik doa, poliziaren irribarre maltzurra begietan sartzen ari zaion unean berean. Eta oso azkar gertatu da dena,

segundo batean: emakumeak besotik heldu dio Abdouri.

Nire senarra makal samarra da, esan dio poliziarri zalantza izpirik gabe. Goazen, laztana, alaba zain dugu-eta.

Emakumeak ez du ezer gehiago erantsi, musu leun bat Abdouren masailean, hori besterik ez. Besotik helduta jaitsi dira bagoitik. Abdou hitzik gabe geratu da; ezin du gertatzen ari dena sinetsi. Baina besotik tinko heltzen dion emakumearen aginduetara dago. Erabat.

Poliziak susmoz beterik begiratu dio bikoteari segundo batez; hitza ahoan du. Lankideari zerbait esan eta lanean jarraitu dute biek.

Liburua besapean duen gizonak den-dena ikusi du. Zerbait esatera doa, baina nahiago izan du behin-behineko bikotea geltokiko sarrera nagusitik desagertzen ikusi –liburuetan ez baitu horrelakorik inoiz irakurri ahal izan–. Gaztea geltokiko eserleku batean eseri da, beste edozein izan zitekeen eserleku batean. Eta zerbaiten zain geratu da.

Geltokitik atera denean, euria ari duela ikusi du Abdouk. Emakumeak polizia begira ez dutela ziurtatu ondoren, besoa askatu dio Abdouri. Honek irribarre zintzoa eskaini dio: zigarroarena ezin izan dio eskertu, baina bai geroztik egin duen guztia. Ondoren, azken begirada bat agur modura. Istant batez.

Zain duen gizon bati eman dio musu ezpainetan emakumeak, oso leun. Motor batera igo eta urrundu egin dira.

Abdouk, berriz, poltsikoan duen helbidea atera du taxi batera igo aurretik. Gidariak ez dio hasieran oso

aurpegi ona jarri, baina ordaintzeko dirua duela ziurtatu ondoren, igo daitekeela esan dio Abdouri.

Taxira igo aurretik, Abdouri oraindik lokietatik darion izerdia darama euriak. Eta behin eserlekuan, aitaren argazkia erakutsi dio Abdouk taxi-gidariari.